

## PRENTSA OHARRA

### Azken astea *Niki de Saint Phalle* erakusketa ikusteko

Ekainaren 7an itxiko du Guggenheim Bilbao Museoak *Niki de Saint Phalle* erakusketa. Arrakasta handia izan du eta otsailaren 27an ireki zenetik 250.000 bisitari baino gehiago izan ditu. Atzera begirako zabala da, XX. mendeko lehen artista feminista handiaren askotariko lanak hartzten dituena. Saint Phalle ezaguna egin zen *Nana* artelan alaiak, *Tiro-margolan* harrigarriak eta espazio publikoetarako artelanak (besteak beste, Toscanako  *Tarotaren lorategia*) zirela eta.

Erakusketa hori itxi ondoren, ekainaren 9an *Jeff Koons: atzera begirakoia*, irekiko du Museoak. Gure garaiko artearen figura ospetsuenetako bat den Jeff Koons artista estatubatuarraren obran barrena egindako ibilbide aberatsa da. New Yorkeko Whitney Museum of American Art-ek, Parisko Centre Pompidou-rekin eta Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan, antolatu du erakusketa, eta Bilbon BBVA Fundazioaren babes aipagarria du.

Bestalde, uztailaren 3an, *Jean-Michel Basquiat: Bada garaia* erakusketa irekiko da. New Yorkeko artista gailenari Espanian inoiz eskainitako erakusketarik handiena izango da. Art Gallery of Ontariok —Kanadako omen handiko erakundea— antolatu du Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan, eta Iberdrolaren babes eskuzabala du. Ehun bat lan izango ditu, tartean, formatu handiko pinturak, marrazkiak eta argazkiak, Europako eta Ipar Amerikako bilduma pribatu zein publikoetakoak.

Bilbon, 2015eko maiatzaren 29an

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guzta [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es) webgunean eskuragarri (prentsa eremua).

## NOTA DE PRENSA

### Última semana para visitar la exposición *Niki de Saint Phalle*

El próximo 7 de junio el Museo Guggenheim Bilbao cerrará al público la exitosa exposición *Niki de Saint Phalle*, que ha recibido más de 250.000 visitas desde su apertura el pasado 27 de febrero. Se trata de una completa retrospectiva de la primera gran artista feminista del siglo XX, célebre por obras como las alegres *Nanas*, las impactantes *Pinturas-disparo* y obras de arte público como el *Jardín del Tarot*, en la Toscana.

Tras su cierre, el Museo abrirá al público el 9 de junio *Jeff Koons: retrospectiva*, un completo recorrido por la obra del artista norteamericano, una de las figuras más prominentes del arte de nuestro tiempo. Organizada por el Whitney Museum of American Art de Nueva York en colaboración con el Centre Pompidou de París y el Museo Guggenheim Bilbao, se presenta gracias al patrocinio de la Fundación BBVA.

Por otro lado, el 3 de julio, se inaugurará *Jean-Michel Basquiat: Ahora es el momento*, la retrospectiva más ambiciosa celebrada hasta el momento en España sobre el influyente artista neoyorquino. Organizada por la Art Gallery of Ontario, una de las más prestigiosas de Canadá, en colaboración con el Museo Guggenheim Bilbao, cuenta con el generoso patrocinio de Iberdrola, e incluye un centenar de pinturas de gran formato, dibujos y fotografías procedentes de colecciones privadas y públicas de Europa y Norteamérica.

Bilbao, 29 de mayo, 2015

Toda la información sobre el Museo Guggenheim Bilbao a tu disposición en [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es) (área de prensa).